

Zentsura berriro ere

JOAN MARI TORREALDAI



HONA gertakaria, atzekoz aurrera kontatua: Altxelo Jaimek, Iruñeko alkateak, euskarazko komiki-liburu bat erretiratu egin du, ez du batzuten utzi, alegia. Inprimatu eta gero, hau da, 787.-403 pezeta gastatu ondoren. Harrigarria? Harrigarriago da, ordea, komiki horiek Udaltexatek berak antolatutako lehiaketa batean irabazte atereak izatea, eta alkatearen alderdi bereko zinegotzi batek zuzentzen zuen epaimahaiak onartuak eta sarituak izatea.

Eta hona alkate jaunaren zentsura-arrazoak: komiki horietako batzuen «edukin biolentoak, biluzgorritasunak eta mezu sasipolitikoa».

Oroitzapen zaharrez eta txarrez betetzen zait burua eta honetako berriak jakitean. Telegrama gisa agertuko ditut nere bapateko gogoetak:

Bat: Ez da Iruñean berriak gertatzen den zentsura bakarra. Gogoan ditut Mikel Urmenetaren 'Autoretire' arekin gertatua edota *pop-rock* -eko disko "indezente" harekin.

Bi: Ez da frankismo-garaiaren gertatzen hau, hots, zentsura indarrean zegoenean, duela hilabete eskas baizik. Gaur egungo legediaren arabera aginte politikokoak barik justiziari erabaki dezake zer den argitatu batean salagarri.

Hiru: Iskanbila gutxiegi ateratu du gertakari honek. Gogoan dut nik zenolako jantzi-urraketak eta eskandaluak gertatu ziren beste alkate batek, Bilbo-koak, duela urte batzuk, sarituriro liburu bat erretiratu zuean. *Intelligentsia* gutzia asaldatu zen orduan. Eta orain?

Lau: zentsuraren erizpideak nagusiki berdinak dira, lehen eta orain: politika, moralata eta pornografia.

Bost: kasualitate hutsa ote da komiki horiek euskarazkoak izatea?

Ipar haize

JEAN LOUIS DAVANT



IPARTARRA

ez izana gaitik, iparrekooa naiz, eta bozten naiz ipar aldeko abertzale mugimenduan oraindino ezagutu dugun batasunaz.

1987ko bozketan alkarrekin joan ziren orduko hiru alderdiak eta horri esker gaunditu zituzten 1967koen emaitzak. Geroztik berbidetik segitu dute, bera erkoizpenak beti emendatuz. Azkenean ardietsi eta lortu dute hogeitaz urtez ukan ez zuten sinesgarritasuna.

Agian horrela egingen dute geroan ere, nahiz indar berriak agertu diren bitartean eskuinetik eta ezkeretik. Datorren urtean hor ditugu eskualdeko eta departamenduko (probintziako) hauteskundeak. Batasunaren beharra badukegu sekula baino gehiago. Zatiurik gertatzen baino hobe etxean egoitea. Bestela betikoak antzera ditugu: hain guti zaret abertzaleak, beraz hemen ez da euskal prolemarik...

Lazgarriak dira bizi ditugun arazoak: bereziki lan gabezia, euskararen beharpena eta laster jendeztaren. Horien aintzinean, denen beharra badela erraita guti da eta, enetzat, Euskal Herriaren kaltean ari litake bereizgoa bila lezakeena. Agian ez da horrelakorik izanen, ez ipar aldetik, ez hego aldetik. Hemen ez dute lekunik hego aldean alkarren aurka ikusten ditugun bi estrategiek, ez baitugu ez autonomiarik, ez independentziaren menturarik epe laburrean. Beraz politika saillean, ez dugu hego aldearen kopiatzerik. Bide bakar bat dut hemen ikusten, Abadia eta Xahok erakutsi zigutena.

Herald Tribune

Frantziako hurrengo lehendakaria

Gero eta setiatuago dagoen gobernu sozialistatik Michel Rocard kanpo uztean, Miterrandek urteko aukera eman dio konturatu gabe. Frantziako lehendakari izateko esperantza izan eta Rocardek inkestatan duen ospea izatera hel daitekeen bakarra Jacques Delors da. Miterrandek finantz ministro ohia eta Europako Komunitateko gaur egungo lehendakaria. Baina, hainbeste denboran Frantziako politikagintzatik kanpo egon izana, oztopoa izan daiteke Delorsenetzat benetako kanpaina hasten denean.

JIM HOAGLAND

EL DIARIO VASCO

Otsoaren arrazoiak

Argiak izan gaitezen: autodeterminazioa baldin bada gaur egun Euskadin dagoen arazorik

garrantzitsua, hainbeste pertsona argiek ziurtatu bezala—hasi Txillardegitik eta Carlos Santamariarengana, tartean Garaikoetxea eta zuek jarri nahi dituzten guztiak gehituta—; autodeterminazio horretarako esenplua totalitarismoak zapalduko nazionalitatearen aurkitu beharra badago, Baltikoan eta horiekin muga egiten duten zonetan independentzia lortu berria dutenak; euskaldunok Estatu independentea izan edo horretarako eskubidea onartu artean (momentuz ez dugula nahi, eskerrik asko, gehitu arren), bidegabeki menperatuko gaituzte eta geure identitatea zapalduka ikustearen kezkarakin... bueno, kasu horretan, otsoari aurregia dakiok erarik ez izatea, baina ez arrazoirik ez izatea.

FERNANDO SAVATER

EL MUNDO

Bat datoz

Gerrak bere jarraitzaileei merkatuko sozialismoaren ebanjelioa eman zien ia aldi berrean, EAJK berezi nazionalis-



«Kontxo. Gutsienez 4.000 urte ditu...». Leizaran autobidea. Negoziaiek direla eta geldirik ez dagoen lanak.

moaren horizonte berria proposatu zien: «Iparraldeko Nazionalismo bat eta Hegoaldeko beste bat egon daiteke. Bestela esanda, bihotzeko nazionalismo bat eta ongizateko beste bat.

Merkatuko sozialismoa, ongizateko nazionalismoa. Ken ezazue azala. Ez al zaizue iruditzen, funtsean, Gerra eta EAJ

gauza beraz hitz egiten ari direla?

EDITORIALA

EL PAIS

Izen aldaketa

Txetxenoen arazoa txikia da, errepublikan artean sor daitezkeen beste batzuekin parekatuta, irtenbide negoziatuak lortzen ez badira. Kasurik larriena Ukrainarena da, 51 milioi biztanlerekin eta Errusiarekin duen gatazka potentzial izugarriarekin, bi errepublikek nolabaiteko batasunean integratzea lortuko ez balute. Kieveko Legebiltzarreko botoa—400.000 gizoneko armada sortzea eskatzekoa—propagandakoa dela pentsa daiteke oraindik ere aurrekonturik ez dagoenean, baina gauzak hausduraren bidetik badoaz, Ukrainiak har dezakeen bide militarista adierazten du. Giro horretan beste adierazgarria, Kieveko Legebiltzarrek onartutako legea da, Ukrainiako mugak alda daitezkeela uste dutentzat 10 urteko gartzela zigorra ezartzen duena.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Jon Miranderen izenean

Sieg Heil!
Adiskide maitea:
Goraintzi Tir-na-nó-eticik. Huna goiz hontan EGUNKARIA irakurri dudala, ber gauzaren gainean. Dagoeneko bi artikulu dituzu gai huntaz, agian ados nindagoke erraiten duen funtsaren amñiñi batekin bainan lehenbizikoan ez daki irainak eta zioak bereizten eta bigarrenean, bertzean adierazten zuena argitzen saiatuz, mezua nahastu eta ilundu egiten ditu. Hanbat gaixto idazlearentzat. Baina harrigarria duzu, handiena, aldi hontan ene izena aipatzen derautala eta aitortzen deizut oraindik bizirik ote nongoentz ustean ikara ukan dudala, berriaz ere, uskaldunon ezjakintasun eta harrokeriarat itzuli arazi nindukeala. Baina, zorionez, ez duzu hala; artikuluak begiak altzaten ditudalarik Theresaren begitarre gorrituxea ikhusten ahal dizut ene ondoan. Hautarekin nagokizu eta dakhusazun bezala munduaren azkenera arteo he-

men geratzeko asmoa deizut. Ez naizateke joanen bertze lekutara, ezta berriro ere Uskaltzeratik gibelatu. Dena dela, hark hilik nagoelarik ere zulo likits hortara nahi naizu. Ihardespen bat egin behar neraukon ala ez pentsatu derautuz nihar erabilia izana ez baitzait nehondek ere laketago ezen ene lanaz edo ene izenaz bera ala bertze kristauak balia daitezkan. Herrizale naizelarik ere, ez zait gustatzenago basati on aldaeratarat igan lezaten. Ez dezan oraingoan ahantz Rousseau-ren idealismo romantikoak berak ere ideologikoki sustatu zuela Frantziako iraultza eta itzulur-dikatze honek ez zuela nehoiz onik ekharri Uskaltzeriendako. Niketz zioak emanez eta nehoi pertsonalki laidotu gabe egin deraukot gudu konformismu-ari; hari edo hoi min-tzea ez duzu nere moldea. Kristino herriak hainbertze maila dituen martiriak ez ditut atsegin, ez eta are gutxiago argudio tinkoon orde-zen izena jainko batena bailtzen, trukean erabiltzen duten horiek ere. Gaur, ondikotz, orduan bezala, nere

herritarren konformismuak, jakinezaren ausartziak, jakintsu, sasi jakintsu eta arloteen kulturarik ezak, euskaldunon helgabetasunak, umekeriak eta, minena zaidana, antikonformismuaren ikurrña jaso eta zikindu derautaten suminduek... nazaturik nadukate.

Ortiziren izenean agur eta bake.

Jon Mirande.
JUAN KARLOS LOPEZ MUGARTZA
Iruñea

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makina idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean. Laburu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea jasotako eskuiztak ez zaizkio itzuliko idatzi dituenari.

PERTSONAIA



David Duke

Pertsonai honen izena David eta abizena Duke, Louisiana-ko Gobernadore berak izan nahiko luke, Ku-Kux-Klanean ibili baita hortik hameka 'birtute', bertakoentzat hori komeni denik behinpen ez dut uste, esklabotzaren garaietara bueltatu nahi ez badute.

MIKEL TABERNA 'KAPI'

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIEEN ETXEZABARRETA INAKI URUA

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentzia: INMA GOMILA

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 80090

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitate eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Arabak: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11